

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA

Ordainketa seguruak eta itzultzeak

Online erosiko duzu?

Online denda seguruak dela ziurtatzeko, ondoko **segurtasun adierazleak** egiaztatu:



✓ Zerbitzari seguruak URL helbidea **https://** hitzekin hasten da.



Giltzarrapo itxi bat edota **giltza** bat segurtasun sinboloak dira ere.



Online Konfiantzako Ziguiluak adierazten du webgunea **egiaztatu** dela eta enpresak konpromiso etiko eta jarrerakoak bere gain hartuko dituela.



Egiaztatu online denda antzeko beste jarrera kode bati edo **Kontsumoko Arbitrajeari** atxikita dagoela.

Ordainketa seguruak



Zerbaiz ordaintzera zoazenean, egiaztatu online dendak **VeriSign** zigilua ba ote duen. Sareko segurtasun-protokolo zorrotzenak erabiltzen ditu eta egiten diren diruzko transakzioetan isilekotasuna ziurtatzeko erabiltzen da.



Ordainketa mota ezberdinak daude, **PayPal**, adibidez. Erreminta hori oso erabilgarria da, duen konfidentzialtasuna eta segurtasunagatik.

Atzera egiteko eskubidea



Eskubide horrek aukera ematen dizu produktu bat **aldatzeko** edo zerbitzu bati baja emateko, penalizaziorik gabe eta zure erabakia justifikatu beharrik gabe. Horretarako legezko epea **14 egun** dira. Produktua jasotzen denean edo zerbitzua kontratatu den egunean hasten da zenbatzen epe hori.

Produktu guztiak ezin dira itzuli. Salbuespenak: neurrirra egindako produktuak, fitxategi informatikoak edo zigilua kendu zaien diskoak, adibidez.



Informa zaitez online dendek daukaten **itzultzeko politika**: litekeena da **bidaltzearen gastuak** zuk zeuk ordaindu behar izatea.